

Euskal gazteria eta bere migrazio-mugimenduak

Eusko Jaurlaritzaren Enplegua eta Gizarte Politiken Sailak emandako datuen arabera, azken urteetan aldatu egin da 16tik 29 urtera bitarteko euskal gazteen langabezia-tasa: 2007an egon zen gazteen langabezia-tasarik txikiena (% 5,7); dena dela, krisi ekonomikoaren ondorioz, tasa hori etengabe haziz joan zen, harik eta 2013an bost aldiz handiagoa izaterairitsi zen arte (% 29,7); hala ere, ordurik aurrera beherantz egin du, eta gaur egun % 18,76an dago (BAI, 2018ko 2. hiruhilekoa). Azken urteetako langabezia-tasa handi horren eraginez, beharbada, zenbait gaztek beste eskualde edo herrialde batzuetara alde egin dute, lan eta prestakuntza aukeren bila.

Gazteen lan-merkatuaren egoera hori aztertzeko orduan, kontuan hartu behar dira Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren gazteen – 18tik 34 urtera bitartekoen – bilakaeraren datu demografikoak. Eta, horrela, gazteen kopurua etengabe jaitsi da, eta 2005ean biztanle guztien % 27,2 izatetik 2017an % 18,7 izatera pasatu dira. Gazteen jaitsiera hori oparoaldi zein atzeraldi ekonomikoko garaietan gertatu da, eta, beraz, EAEn bizi den biztanleria zahartu egin dela esan nahi du.

Horretaz gain, jakintza maila handiagoa eta ezaugarri profesional espezializatuak dauzkaten profesionalak behar dira, eta, ondorioz, kezka handia sortu da euskal lan-merkatuaren etorkizunari dagokionez.

Kezka horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak, 2016an, Gazteria Zuzendaritzaren eta Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren bidez, zenbait ikerketa egin ditu gazteriarekin eta gazteen migrazio-mugimenduekin lotuta. Ikerketa horietatik ondorioztatzen denez, gazteen artean EAetik ateratzeko joera ikusten da 2000tik aurrera, bai oparoaldietan bai atzeraldi ekonomikoko aldietan ere, eta 2009an, irteera gehien izan zen urtean, 4.504 irteera izan ziren. Era berean, gero eta gehiago dira atzerrira ateratzen direnak, baina Estatura atera direnen kopurua oso nabarmena da oraindik ere; izan ere, irteera guztien % 48,1 izan dira atzeraldi ekonomikoko garaian (2008-2014).

Hain zuzen ere, 15 urtetik 29 urtera bitarteko euskal gazteen % 31,6 atzerrira atera dira ikastera, lan egitera, ikertzera edo boluntario-lanak egitera. Arrazoi nagusia hizkuntzak ikastea da (% 22,6); % 14,4 ikastera edo eskola- edo unibertsitate-trukeetan parte hartzera ateratzen dira; % 7,5, ikasketetako praktikak egitera; ikertzera; % 5,9; eta boluntario- edo lankidetzeta-lanak egitera, % 4,6.

Datu laboral eta demografiko horiek aztertuta, eta produkzio-merkatuak gero eta globalagoak eta lehiakorragoak direla kontuan hartuta, Europako agintaritzak publikoek – Europako Batzordeak, esate baterako – eta Europako zenbait herrialde eta eskualdek lan-mugikortasuna errazteko politikak ezarri dituzte (adibidez, EURES sarearen bidez), bai eta talentuaren kudeaketarako politikak eta, orokorrean, langileen fluxua kudeatzeko politikak ere. Eta horren guztiaren helburua izan da eskualdeko eta tokiko merkatuaren beharrezanean erantzutea eta nazioarteko lan-esperientzia eskuratu dutenei, hizkuntzak ikasi dituztenei eta beste kultura batzuetan ikasi dituzten lan-metodologiak eskuratu dituztenei, nahi badute, jatorrizko herrialde eta eskualdeetara itzultzeko aukera ematea.